



lana eta euskara elkarlanean

## ARRATIAKO 24 ENPRESEK KONPROMISOA HARTU DUTE ARLO SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARA SUSTATZEKO

*Enpresek, Gorbeialdea landa garapeneko elkarteak eta Zulaibar Lantegi Ikastegiak hitzarmena sinatu dute Errota fundazioarekin; trukean, eusGara-k eskaintzen dizkien doako zerbitzuez baliatu ahalko dira euskararen presentzia handitzeko.*

*24 empresa horietan 1.300 beharginek egiten dute lan. Tartean daude 100 langiletik gorako hiru enpresa: Batz, Ilunbe eta Ormazabal.*

*Bi pilotaje abiatu dituzte 2022an: turismoa euskalduntzeakoa bata, eta Lanbide Heziketako ikasleen praktikak euskaraz izan daitezen bermatzekoa bestea.*

Igorren, 2022eko apirilaren 1ean

Arratiako **24 enpresek konpromisoa** hartu dute arlo sozioekonomikoan **euskara sustatzeko**, eta helburu hori lortzeko, datozen bi urteetan **eusGara zerbitzuak eskaintzen dizkien tresnak** baliatuko dituzte. Doako zerbitzua da, eta bere helburua da Arratiako arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzea. Enpresen esku jartzen dituzte honako baliabideak: itzulpen zerbitzua, hizkuntza aholkularitza, diru-laguntzen kudeaketa, edo trebakuntza saioak. Enpresa handi zein txiki, arlo ugaritan diharduten lantegiek egin dute bat eusGara komunitatearekin, eta denen artean, **1.300 behargin baino gehiagori ematen diote lan**.

Errota fundazioak kudeatzen duen zerbitzua da eusGara, eta gaur goizean **sinadura ekitaldia egin dute Igorren**. Euskararen erabilera handitzeko konpromisoa hartu duten 24 enpresetatik **hamahiru enpresek hartu dute parte** bertan. Zerbitzua diruz laguntzen dute Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko



lana eta euskara elkarlanean

Jaurlaritzak, eta sinadura ekitaldian izan dira proiektuaren bultzatzaile diren erakundeetako ordezkari nagusiak: **Iratxe Goikoetxea** Errota fundazioko koordinatzailea; **Lorea Bilbao** Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol saileko foru diputatua; eta **Miren Dobaran** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordea.

Arratiako udalak ere presente egon dira ekitaldian, Errota fundazioaren parte diren heinean. **Sei herritako alkate edo udal ordezkari** egon dira Igorreko ekitaldian: Igorre, Lemoa, Dima, Artea, Areatza eta Bedia. Euskalgintzatik, bestalde, AEK euskaltegia eta Begitu hedabidea gerturatu dira, eta sindikatuen aldetik ELA.

**eusGara proiektuaren helburuak** gogora ekarri ditu Iratxe Goikoetxeak ekitaldian: “Duela lau urte ikusi genuen garrantzitsua zela lan munduaren garapena euskararekin lotzea. Lurraldearen garapenak euskaraz izan behar zuela ikusi genuen”. Azken batean, euskarak balio erantsia ematen diolako lan munduari, bere esanetan. Arratiako arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko, erakunde, enpresa eta eragileen arteko elkarlana goraipatu du. **“Arratiako lan eremuak euskalduna izan behar duela sinistuta gaude; enpresa hauek guztiek gurekin bat egiteak helburu hori lortzen lagunduko digu”**.

Lorea Bilbaok ere hitz egin du sinadura ekitaldian, **lan munduan euskarak duen garrantziaren** inguruan: “Funtsezkoa da lanerako saltoa ez izatea eten bat euskarari dagokionez. Eskolan, institutuan, lanbide heziketan edo unibertsitatean euskaraz ikasi ondoren behar-beharrezko dugu horri segida ematea lanean ere. Euskara gizarte alor guztieta eta adin-tramu guztieta erabiltzea da gakoa, guziontzat eta egoera guztiatarako”.

Miren Dobaranen arabera, **“euskararen iraunkortasunari begira, inozko aukerarik onenean gaude hizkuntza politikan eremu ekonomiko pribatuan pauso ausartak emateko”**. Horregatik esan du eusGara proiektua erabat dela estrategikoa hizkuntza politikaren ikuspegitik. Eta erakunde ezberdinaren arteko elkarlanaren balioa goraipatu du: “Balioa eransten dio erakunde desberdinak elkarrekin lanean jartzen gaituen heinean. Balioa eransten dio, halaber, ulertzten duenean euskaratik ardatz litekeen jarduera ekonomiko sistematizatuak eratu eta egonkor litzkeela. Ibili dabilenaren jakintzaren mezua baliagarria zaigu etorkizuneko jarduera ekonomikoa bestela irudikatzeko. Euskaratik ere irudikatzeko”.

(LOREA BILBAO)

## 100 LANGILETIK GORAKO 3 ENPRESA

eusGara zerbitzuarekin bat egin duten enpresak arlo ugaritakoak dira. Sektore hauetakoak, hain justu: enpresa industrialak, hornitzaireak, banaketa enpresak, lehen sektorekoak, auto tailerrak, inprentak, ostalaritza, zahar egoitzak eta garbikuntza.

Enpresa gehienak ertainak edo txikiak dira, baina zerbitzuarekin bat egin duten hiru enpresek 100 langile baino gehiago dituzte: **Batz, Ilunbe eta Ormazabal**. **Hiruren artean 1.000 langile ingururi ematen diote lan.**

Hauek dira gainerako 19 enpresak: Ormaurre, Comecaran, Industrias Galarza, Behingoz, Tresnak, Arbegui, Lur 2000, Autos Kastrexana, Carrocerias Usansolo, Autos Varela, Carrocerias Joseba, Zuloaga Motor, Graficas Arratia, Rotulos Usansolo, Zuhaitz Etxeak, Etxegana hotel & spa, Amorrottua ostatua, Arratiako egoitza eta Limpiezas Arratia. Horiez gain, Zulaibar Lanbide Ikastegiak eta Gorbeialdea landa garapeneko elkartea ere bat egin dute eusGararekin.

Batzek bi hamarkada daramatza euskararen erabilera handitzeko lan egiten, 2001ean lehen euskara plana onartu zutenetik hain justu. eusGara zerbitzua sortu zenean sustatzaileetako bat izan zen horregatik. Ilunbe eta Ormazabal dira, ordea, 2022ko berritasun nagusiak. Ilunberekin lanketa egiten duela zortzi hilabete inguru hasi ziren eusGarako teknikariak, eta hizkuntza kudeaketa hobetzeko proiektua onartzekotan da zuzendaritza egun. Zerbitzua abiatu zenetik lanketa egiteko prest agertu da beti Ilunbe, baina urratsa aurten eman du, eta horregatik aurrerapen hori nabarmendu dute.

Ormazabalek bestalde, pasa den astean konfirmatu zien eusGarako teknikariei zerbitzuarekin bat egingo zutela.

## BI PILOTAJE MARTXAN

Arratiako arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko orain arte egindako lanketari **bi ildo berri** gehitu dizkio aurten eusGarak. Izan ere, bi pilotaje abiatu ditu **turismo sektorean eragiteko, eta Lanbide Heziketako ikasketak egiten** dituzten ikasleek praktikak euskaraz egin ditzaten. Horrez gain, 2020an auto tailerrekin abiatu zen kanpainaren ondorioz bat egin zuten tailer batzuek ere jarraitzen dute zerbitzuarekin.



lana eta euskara elkarlanean

**Turismo pilotajea Gorbeialdea** landa garapeneko **elkartarekin batera** jarri da martxan. Elkarrekin bilera egin ostean, kezka bat partekatu zuen elkartea: Arratia eskualde euskalduna izanik, eta bertara doazen bisitarien ehuneko handi bat euskal herritarra izanik, turismo arloko establezimendu askotan gaztelera asko ikusten zela. **Hizkuntzak turismoari balio gehigarria** ematen diola ulertu zen, eta lekuaren beraren ezaugarriak transmititzen laguntzen duela. Horregatik pentsatu zen pilotaje bat abiatzea, ikustea zelako erantzuna izan dezakeen 2022. urtean, eta emaitzaren arabera 2023an turismo arloko establezimendu gehiagotara zabaltzea. Zuhaintz Etxeak eta Etxegana hotel & spa establezimenduek interesa erakutsi dute.

Beste pilotajeari dagokionez, **Zulaibar Lantegi Ikastegiarekin** hartu-eman ugari izan dituzte eusGara zerbitzuko teknikariek, eta bertatik ateratzen diren **ikasleek praktikak euskaraz egin ditzaten** pilotajea abiatu da. Horretarako, praktikak egitera joan diren **ikasleei motibazio saioak** eman zaizkie, jakin dezaten enpresa arloan hizkuntzak zelako garrantzia duen. Horrez gain, Arratiako Egoitzarekin jarri dira harremanetan eurengana praktikak egitera doazen ikasleekin lanketa nola egin ikusteko: ikasleek praktiketan izaten duten bidea detektatu, eta zein euskarri euskaratu behar den jakin. Ostea, gainerako enpresekin ere lanketa hori modu orokortuagoan egingo da.

## KOMUNITATE IZAERA INDARTU

eusGara proiektuarekin bat egin duten enpresekin egin den lanketa orain arte banan-banakakoa izan da, baina Igorren gaur egin den ekitaldiarekin **Arratian euskara bultzatzeko prest dauden enpresen komunitatea sortuko da**. Elkar ezagutzeko parada eduki dute, eta urtean zehar hainbat kampaina eskainiko zaizkie: telefonoa euskaraz hartzeko ikastaroak, e-mailak idazteko euskarazko ikastaroak, .eus domeinua sustatzeko kampaina, Euskaraldian parte hartzeko kampaina... Hau da, euskararen alde egiteko prest dauden enpresen komunitate hori trinkotu nahi da halako egitasmoekin.

## HARREMANETARAKO

608928025 / 607148096 // [eusgara.errota@gmail.com](mailto:eusgara.errota@gmail.com)

Eñaut Barandiaran / Lander Muñagorri



lana eta euskara elkarlanean

## 24 EMPRESAS DE ARRATIA SE COMPROMETEN A IMPULSAR EL EUSKERA EN EL ÁMBITO SOCIOECONÓMICO

*Las empresas, la asociación de desarrollo rural Gorbeialdea y Zulaibar Lantegi Ikastegia han firmado un convenio con la fundación Errota para que, a cambio, puedan beneficiarse de los servicios gratuitos que les ofrece eusGara para aumentar la presencia del euskera.*

*En estas 24 empresas trabajan 1.300 trabajadores. Entre ellas se encuentran tres empresas de más de 100 trabajadores: Batz, Ilunbe y Ormazabal.*

*En 2022 han puesto en marcha dos pilotajes: uno para euskaldunizar el turismo y otro para garantizar que las prácticas de los alumnos de Formación Profesional sean en euskera.*

**En Igorre, a 1 de abril de 2022**

**24 empresas de Arratia se han comprometido a impulsar el euskera** en el ámbito socioeconómico, y para ello **se beneficiarán de las herramientas que les ofrece el servicio eusGara** durante los próximos dos años. Se trata de un servicio gratuito cuyo objetivo es incrementar el uso del euskera en el ámbito socioeconómico de Arratia. Ponen a disposición de las empresas los siguientes recursos: servicio de traducción, asesoramiento lingüístico, gestión de subvenciones, o sesiones de formación. Tanto grandes como pequeñas empresas se han sumado a la comunidad eusGara, y **entre todos estos centros trabajan en más de 1.300 trabajadores**.

eusGara es un servicio que gestiona la fundación Errota y esta mañana se ha celebrado **un acto de firma en Igorre**. **Trece de las 24 empresas** comprometidas con el incremento del uso del euskera **han participado** en el mismo. El servicio está subvencionado por la Diputación Foral de Bizkaia y el



lana eta euskara elkarlanean

Gobierno Vasco, y en el acto de firma han estado presentes los principales representantes de las instituciones impulsoras del proyecto: la coordinadora de la fundación Errota, **Iratxe Goikoetxea**; la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, **Lorea Bilbao**; y la viceconsejera de Política Lingüística del Gobierno Vasco, **Miren Doabarán**.

Los ayuntamientos de Arratia también han estado presentes en el acto, como parte de la fundación Errota. El acto ha contado con la presencia de **alcaldes o representantes municipales de seis localidades**: Igorre, Lemoa, Dima, Artea, Areatza y Bedia. Desde el ámbito del euskera, por su parte, se han acercado miembros del euskaltegi AEK y el medio de comunicación Begitu, y por parte de los sindicatos ELA.

Iratxe Goikoetxea ha recordado **los objetivos del proyecto eusGara**: "Hace cuatro años vimos que era importante relacionar el desarrollo del laboral con el euskera. Vimos que el desarrollo del territorio debía ser en euskera". En definitiva, según ella, que el euskera aporta un valor añadido al sector económico. Ha destacado la colaboración entre instituciones, empresas y agentes para euskaldunizar el ámbito socioeconómico de Arratia. **"Estamos convencidos de que el ámbito laboral de Arratia debe ser euskaldun; la adhesión de todas estas empresas a nosotros nos ayudará a conseguir ese objetivo"**.

Lorea Bilbao también ha hablado en el acto de firma sobre **la importancia que tiene el euskera en el trabajo**: "Es fundamental que el paso al mundo laboral no suponga un parón para el euskera. Después de aprender euskera en la escuela, en el instituto, en formación profesional o en la universidad, es necesario darle continuidad en el ámbito laboral. La clave es utilizar el euskera en todos los ámbitos de la sociedad y en todos los grupos de edad, para todos y para todas las situaciones."

Según Miren Doabarán, **"estamos en la mejor oportunidad para dar pasos valientes en las políticas lingüísticas en el ámbito económico privado"**. Por eso dice que el proyecto eusGara es absolutamente estratégico desde el punto de vista de la política lingüística. Y ha destacado el valor de la colaboración entre las diferentes instituciones: "Añade valor a medida que nos pone a trabajar juntos a las instituciones. También le añade valor cuando entiende que se podrían constituir y estabilizar actividades económicas sistematizadas que pudieran centrarse en el euskera. El mensaje del conocimiento de quien camina nos sirve para imaginar de otra manera la actividad económica del futuro. Para representarlo también desde el euskera".

### 3 EMPRESAS DE MÁS DE 100 TRABAJADORES

Las empresas que se han sumado al servicio eusGara pertenecen a un amplio abanico de áreas. De los siguientes sectores: empresas industriales, proveedores, empresas de distribución, del sector primario, talleres de coches, imprentas, hostelería, residencias de ancianos y limpieza.

La mayoría de las empresas son medianas o pequeñas, pero hay tres empresas de más de 100 trabajadores: **Batz, Ilunbe y Ormazabal. Entre los tres dan empleo a unos 1.000 trabajadores.**

Las 19 empresas restantes son los siguientes: Ormaurre, Comecaran, Industrias Galarza, Behingoz, Tresnak, Arbegui, Lur 2000, Autos Kastrexana, Carrocierias Usansolo, Autos Varela, Carrocierías Joseba, Zuloaga Motor, Gráficas Arratia, Rotulos Usansolo, Zuhaitz Etxeak, Etxegana hotel & spa, Arratia Egoitza, Arratia. También se han sumado a la iniciativa Zulaibar Lanbide Ikastegia y la asociación de desarrollo rural Gorbeialdea.

Batz lleva dos décadas trabajando para aumentar el uso del euskera desde la aprobación del primer plan de euskera en 2001. Ilunbe y Ormazabal son, sin embargo, las principales novedades de 2022. El trabajo con Ilunbe comenzó hace unos ocho meses y la dirección está a punto de aprobar el proyecto de mejora de la gestión lingüística. Desde la puesta en marcha del servicio, Ilunbe siempre se ha mostrado dispuesta a participar, pero el paso lo ha dado este año, por lo que han destacado este avance.

Ormazabal, por su parte, confirmó la semana pasada a los técnicos de eusGara que se sumarían al servicio.

### DOS PILOTAJES EN MARCHA

A la labor realizada hasta la fecha para euskaldunizar el área socioeconómica de Arratia, el servicio eusGara ha añadido este año **dos nuevas líneas de actuación**. De hecho, ha puesto en marcha dos pilotajes para **incidir en el sector turístico, y para que los alumnos que cursen estudios de Formación Profesional puedan realizar sus prácticas en euskera**. También continúan trabajando con el servicio algunos talleres de coches que se sumaron en la campaña de 2020.

**El pilotaje turístico** se ha puesto en marcha junto a la asociación de desarrollo rural **Gorbeialdea**. Tras una reunión conjunta, la asociación compartió la



lana eta euskara elkarlanean

preocupación de que, siendo Arratia una comarca vascoparlante y con un porcentaje importante de visitantes vascos, en muchos establecimientos turísticos se veía mucho castellano. Se entendió que **el euskera aporta un valor añadido al turismo** y ayuda a transmitir las características del propio lugar. Por eso se decidió iniciar un pilotaje, ver la respuesta que puede tener en 2022 y en función del resultado extenderlo a más establecimientos turísticos en 2023. Zuhaintz Etxea y Etxegana Hotel & spa se han adherido al servicio a raíz de este pilotaje.

En cuanto al otro proyecto, los técnicos de eusGara han mantenido numerosos contactos con el centro **Zulaibar Lantegi Ikastegia**, y se ha puesto en marcha el pilotaje para que **los alumnos** que salgan de él **realicen las prácticas en euskera**. Para ello, se han impartido **sesiones de motivación** a los alumnos que han ido a realizar las prácticas, para que adquieran la importancia de la lengua en el ámbito empresarial. Por otro lado, se han puesto en contacto con la Residencia de Arratia para ver cómo realizar el trabajo con los alumnos que se dirigen a ellos para realizar las prácticas: detectar el camino que tienen los alumnos durante las prácticas, y saber qué soporte hay que traducir al euskera. Así, esta labor también se realizará de forma más generalizada en otras empresas.

## REFORZAR EL CARÁCTER COMUNITARIO

Hasta ahora, el trabajo que se ha realizado con las empresas adheridas al proyecto eusGara ha sido individual, pero con el acto celebrado hoy en Igorre se creará **una comunidad de empresas dispuestas a impulsar el euskera en Arratia**. A lo largo del año se les ofrecerán cursos de telefonía en euskera, cursos de escritura de e-mails en euskera, campaña de promoción del dominio .eus, campaña de participación en Euskalherria... Es decir, con este tipo de proyectos se pretende compactar a esa comunidad de empresas que están dispuestas a apostar por el euskera.

## PARA CONTACTAR

608928025 / 607148096 // [eusgara.errota@gmail.com](mailto:eusgara.errota@gmail.com)

Eñaut Barandiaran / Lander Muñagorri